

# Gutuna: Istripu larria auzoan

## Eman zure iritzia

Orain zure iritzia eman behar duzu idatziz. Beherago dituzu gaia, egoera eta egitekoa idazlana osatzeko. Bukatzen duzunean, konparatu zure idazlana "erantzun-orrian" duzun idazlanarekin (edo bidali irakasleari zure testua).



## Gaia: Istripu larria auzoan

**Egoera.** Gutun hau jaso duzu etxean:

Auzokide hori:

Badakizu, lekuko izan baitzinen, joan den astean istripu larria izan genuela auzoan: auto batek ume bat harrapatu zuen. Ez da lehenengo aldia. Arazo honi buruz hitz egiteko Udaleko arduradunekin hitzordua dudanez, auzokideon iritzia jaso nahiko nuke bilerara eramateko.

Hasteko, zer gertatu zen zehazki? Noren errua izan zen? Zein da benetako arazoa auzoan (gehiegizko trafikoa, autoen abiadura, umeentzako jolasleku falta...) zure iritziz? Zergatik? Zer irtenbide proposatuko zenuke aurrerantzean, horrelakorik ez gertatzeko?

Zure erantzuna laster jasoko dugulakoan, mila esker aldez aurretik.

Amurrion, 2020ko ekainaren 5ean.

Auzo-elkarteko presidentea

**Egitekoa.** Erantzun auzo-elkarteko presidentearen gutunari, zure iritzia emateko.

Gutxi gorabehera, 200 hitz idatzi behar dituzu.